



<b>Izenburua</b>	Adimen emozionalaren lanketaren bidez familia barruko euskararen erabileran eragiteko saiakera
<b>Egilea</b>	Nekane Goikoetxea, Andoaingo Udala
<b>Data</b>	2009/03/11

# aurkibidea

---

1. Sarrera .....	1
2. Tailerraren deskribapena .....	4
3. Egitasmoaren norabideaz .....	6
4. Zergatik Aita Larramendi ikastolan .....	8
5. Balorazioa eta aurrera begirako proposamenak .....	9

## 1. Sarrera

---

Txosten honetan [Buruntzaldeko Udalok](#) bideratutako egitasmoaren barruan [Andoaingo Aita Larramendi ikastolan](#) burutu dugun tailerraren nondik-norakoa aurkituko duzue. Tailer honetan, adimen emozionalaren lanketa eta familia barruko euskararen erabilera areagotzeko eskuhartzea uztartzen saiatu gara.

Tailerra txosten hau bukatzeaz batera amaitu dugu. Beraz, irakurleak proiektuaren testuingurua aurkituko du txosten honetan eta balorazioaren zertzelada nagusiak. Dena dela, jardunalditan bertan sakondu ahal izango ditu irakurleak bai balorazioa bai aurrera begirako proposamenak.

Txostena irakurtzen hasi aurretik, sarrera gisa, hurrengo bi esaldi hauek irakurtzea proposatzen dizugu, irakurle. Eta jolas egiteko gogoia baduzu, egin klik aurretik esteka honetan. Tailerrari buruzko lehen zertzeladak kanta baten bidez iradoki nahiko genizkizuke honela:

### Kanta

Esaldiak:

“Umeez egunean berrehun aldiz baino gehiagotan egiten dute barre. Helduek, aldiz, batez beste, hamabost aldiz egunean. Non daude gainontzeko 185 barreak?”

Xabier Elortza & Alex Mungia

“Diotenez, hurrekin egoteak nekatu egiten du. Arrazoia dute. Eransten dute nekatu egiten duela haien mailan jarri beharra dagoelako, makurtu, jaitsi, belaunikatu, txikiago egin. Oker daude. Ez da hori gehien nekatzen duena. Gehiago da haien sentimenduen altueraraino goratzera behartua gertatzea. Luzatu, handiagotu, hanka-punttetan jarri. Haurrak ez mintzeko.”

Janusz Korczak

Bi esaldiak honako bi liburuetatik aterata daude:



Bi liburu hauetan daude Aita Larramendi ikastolan landu dugun gaiaren koordinatuak:

Lehendabizikoa<sup>1</sup>, Buruntzaldeko familia bidezko egitasmoak eman duen eramangarrietako bat da. Xabier Elortza eta Alex Mungia sortu zuten gurasoentzako liburuxka hau. Bertan, gonbitea egiten zaie aita-amei guraso izatearen inguruan nahiz etxeko euskara-erabilera handitzearen aukeraz gogoeta egin dezaten. Autoreek diote, gainera, horrekin batera, hainbat tresna eraginkor eskaini nahi dituztela nor bere bidea aberats dezan, bai pertsona mailan, bai guraso moduan egokiago jarduteko, bai eta euskaldun gisa zer gehiago egin dezakeen hausnartu eta praktikara eramaten laguntzeko.

Bigarrengoan<sup>2</sup>, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik heziketa emozionalaren lanketa helburu duen egitasmoa azaltzen da. Egitasmo honek isuri ezberdinak ditu, hezkuntza, familia eta lan-eremuak uztartu baititu Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko departamenduak bultzatuta ([www.igipuzkoa.net](http://www.igipuzkoa.net)). Aipatutako liburuan heziketa arloa jorratu da. Honela Gipuzkoako hainbat ikastetxetan, tartean Andoingo Aita Larramendi ikastolan, ikasketa emozionala eta soziala sustatzeko egin den bidea jasotzen da.

Gurekin bizitza elkar banatzen duten umeentzako zutoin ihartuak baino gehiago izan nahi duten gurasoak izan dira jarraian deskribatuko dugun tailerraren hartzaileak, hanka puntetan barreak berreskuratzeko prest etorri direnak.

## 2. Tailerraren deskribapena

---

"Emozioen eta euskararen transmisioa familietan" izenburupean egin zen 4,5 orduko tailerraren eskaintza. Guraso eskolaren ohiko eskaintzaren barrenean jaso dute parte hartzeko gonbitea gurasook. Guztira, 21 gurasok hartu dute parte, 20 ama eta aita batek. Hiru saiotan banatuta, arratsaldeko 4:45etik 6:15era bitarteko ordutegian egin da ikastolaren egoitzan bertan. Honako kide hauek izan dira antolatzaileak:

---

<sup>1</sup> Elortza, X. & Mungia, A. (2006) *Gurasoentzako liburuxka. Etxean zer ikusi, hura ikasi. Zeuk duzu giltza*. Donostia, HABE. ([www.buruntzaldea.org](http://www.buruntzaldea.org) helbidean eskuragarri dago pdf formatuan)

<sup>2</sup> Aritzeta, A.; Pizarro, M. & Soroa, G. (2008) *Emozioak eta heziketa*. Donostia, Erein.



Iñaki Pikabea, EHU-UPVko Hezkuntza Zientziak eta Filosofia Fakultateko irakaslea, Andoaingo Aita Larramendi ikastolako Josune Irazu, hizkuntza normalkuntzarako teknikaria, eta Gloria Castaños, orientatzaile eta guraso eskolaren arduradunak dira argazkikoak. Hirurek prestatu dute tailerraren diseinua. Iñaki Pikabea izan da Gurasoen liburuxkatik abiatuta, gaia didaktizatu eta irakasle aritu dena. Josune eta Gloria ikastola barruko erabakiak hartu eta antolaketa lanez arduratu dira.

Tailerraren eskaintza egiteko garaian honelako testua igorri zitzaion gurasoei seme-alaben eskutik:

*“Buruntzaldeko udalen bidez, “Familia bidezko transmisioa” delako programan hartzen dugu parte. Lehendik argitaratua dago “Etxean zer ikusi, hura ikasi” liburuxka. Liburuxka hau praktikan jartzea izango da oraingo erronka. Horretarako tailer moduan eskainiko dugu. Gurasoek beren eguneroko bizitzan etxeko euskara-erabilera handitzeko zertan hobetu dezaketen aztertuko da. Ikastarotxo honetan hizkuntzaren transmisioan emozioek duten garrantzia azaldu nahi da: gurasoen emozioak eta umeenak. Emozioak autobide politak dira gainean gauza asko garraiatzeko, baita euskara ere. Ariketa eta adibide ximpleez, euskararen transmisioan emozioak onerako nola erabil daitezkeen azalduko da. Ikastaroan batez ere BIZI egingo da. Alegia, emozioak egoki biziz, euskara hobeto transmititzeko erak azaldu nahi dira”.*

Tailerrean landu diren edukiei dagokienez, batetik, emozioen inguruko lanketaren oinarri zientifikoak landu dira: zer diren emozioak<sup>3</sup>, bakoitzak zertarako balio duen<sup>4</sup>, emozio mota ezberdinak, emozioak nola adierazten diren, gorputzean eta gure portaeran duten eragina, adimen emozionalari buruzko ereduak<sup>5</sup>, adimen mota ezberdinak<sup>6</sup>, adimen emozionalaren osagaiak e.a. Bestetik, hizkuntza ekologiaren kontzeptua eta gurasoen liburuxkan jasotzen diren hainbat eduki landu dira. Hirugarrenik, azalpenak, ariketak eta esperimendatzeko teknikak uztartu dira tailerrean zehar: Begoña Ibarrola adituaren ipuinen kontaketa egin eta haurrekiko solasaldiak bideratu dira, adimen mota ezberdinen inguruko ariketak edota emozioak kudeatzeko planifikaziorako teknikak erabili dira.

<sup>3</sup> Goleman, D. (1997) *Inteligencia emocional*. Barcelona, Kayros.

<sup>4</sup> Campos, J.J., Barret, K.C., Lamb, M.E., Goldsmith, H.H. eta Stenberg, C. (1983) “Socioemotional development”. P.H. Mussenn (Serie Ed.) eta M.M. Haith eta J.J. Campos-en (argit). *Handbook of child psychology: 2. alea. Infancy and development psychobiology* (4. argit. 783-915 orr). New York, Wiley.

<sup>5</sup> Mayer, J.D., Salovey, P. eta Caruso, D. (2000) “Models of emotional intelligence”. R.J. Sternberg-en (Argit.) *Handbook of human intelligence* (2. argit.), 396-420.orr. New York, Cambridge.

<sup>6</sup> Gardner, H. (1983) *Frames of mind: The theory of multiple intelligences*. New York, Basic Books.

### 3. Egitasmoaren norabideaz

---

Buruntzaldeko familia bidezko hizkuntza transmisioaren egitasmoak, besteak beste, helburu nagusi bat du: gurasoek hizkuntza transmisioari buruz dituzten uste, sinismen eta portaeren arteko koherentzia lortzea. Aurrekari moduan darabilgu, guraso diren gehienek bat egiten dutela euskararen berreskurapen nahiarekin. Are gehiago, asko eta asko, beren seme-alabak eleanitzak izatea nahi dutela sinistuta gaude. Baina hori lortzeko ez dituzte askotan portaerak helburuekiko lerratzen.

Portaeretan aldaketak eragiteko asmoarekin, gure kanpainak alderdi arrazionaletik, kognitibotik bideratu izan ditugu. Sentsibilizazio lana informazio “berria” ematean oinarritu dugu askotan. Azken urteetan erabili ditugun bitartekoetan, hitzaldi zein ikastaroetan esate baterako, alderdi afektiboari arreta handiagoa jarri diogu. Aita Larramendi ikastolako tailer hauetan, alderdi emozionalari eman diogu lehenetsua eta bizipen horretan garraiatu dugu gure hizkuntza-helburua. Honela, alfabetatze emozionalan jantzen ari diren gurasoei, hizkuntza portaerei erreparatzea proposatu diegu.

Begoña Ibarrolak, psikologo eta adimen emozionalan adituak<sup>7</sup> dio, emozioek berebiziko garrantzia dutela gizakion portaeretan, zenbait emozioek ongi egoten laguntzen digutela eta beste batzuek elkarbizitza oztopatzen eta pertsonen arteko harremanetan arazoak sortzen dituztela. Beraz, gure helburua hizkuntza-portaeretan eragitea bada, emozioen alderdia aintzat hartzen saiatu behar dugula uste dugu. Eta bestetik, ez al guke kontuan hartu beharko hizkuntza normalizazioan gabiltzanok hizkuntzaren inguruan demagun gurasoei, sortzen zaizkien emozioak? Jakin badakigu emozionalki neutralitaterik ez dela existitzen. Oso datu ohargarria da, bizi ditugun emozioak ezkututzen saiatu arren, hitzezko gezurak esanda ere, gure gorputzak hitz egiten duela, ezin duela, nahita ere, gezurrik esan. Gure dimentsio kognitiboak ezin du gure dimentsio emozionala lotu. Zeintzuk dira euskararen berreskurapen prozesuarekin lotuta dauden emozioak? Ematen al diegu bide emozio horiei? Gure eskuhartze programetan kudeatzen al dugu gure xede taldearen alderdi emozional hori? Eta gure emozioak?

Iñaki Pikabearen doktorego tesian<sup>8</sup> irakurri dugu esaldi hau: “...hizkuntza-irakaskuntza ez da metodo-arazoa, pertsona-arazoa baizik...” Esaldi hau estrapolatuz esango guke “euskararen erabileran eragitea ez dela metodo-arazoa, pertsona-arazoa baizik”. Pertsona bakoitzak erabaki behar du nola jokatu nahi duen hizkuntza transmisioarekiko. Aldagai kognitibo eta afektiboekin egin behar dugu lan.

---

<sup>7</sup> HIK HASI (2009) Begoña Ibarrolari elkarrizketa. 135. alea, 2009ko otsaila, 18-23.orr.

<sup>8</sup> Pikabea, I. (2002) *Ikasle helduen ikas-estiloak eta ikas-estrategiak euskararen ikaskuntzan, eta erabilerahiturak ikasgelatik kanpo: interbentzio-programa bat*. Bilbo, EHU-UPV, Argitalpen Zerbitzua.

Gurasoek, oro har, ez daude alfabetatze emozionalean trebatuta. Ez dute emozioen mundua interpretatzen jakiteko eta hori kontrolatzeko, erregulatzeko, erabiltzen jakiteko prestakuntzarik jaso. Beraz, premia horietan ernatu nahi da euskarazko portaeretan mugimendua. Ez alferrik, *motibazio* hitzak bezala, *emozio* hitzak ere latinezko *movere* aditza du oinarrian (e-movere: kanpo aldera mugitu edo nor bere baitatik ateratzea). Talde-lan honetan, nor bere bizipenetan oinarritutako ekarpenak egin ditu. Kontsiderazio indibiduala eta konfidentzialtasuna jokaleku hartuta, ikaskuntza prozesu bat landu da. Talde-lana praktikan oinarritu da, ez baita ahaztu behar, entzundakoa ahaztu egiten dela, ikusitakoa gogoratu eta egindakoa ikasi.

Eskuhartze modu honek hiru ezaugarri dituela esanez laburbilduko dugu atal hau: diziplinartekotasuna, zeharkakotasuna eta kooperazioa.

Diziplinartekotasuna diogu, ez dugulako hizkuntza helburua isolaturik proposatzen, beste osagai bartzuekin integraturik heltzen diogu hizkuntzaren eskuhartzeari, kasu honetan, heziketa emozionalarekin. Horixe dugu "autobidea".

Zeharkakotasunez lantzen dugu helburua, ikastetxea baita gurasoengana iristeko eragilea. Baina ez hori bakarrik, Buruntzaldeko egitasmoaren baitan, eragile ezberdinek osatutako lan-taldearen babesean antolatu delako. Sinergia horretan, hirugarrenik, Gipuzkoako Foru Aldundia aipatu behar dugu, berak sustatu baitu adimen emozionalaren lanketa lurralde honetan.

Kooperazioa da beste giltzarrietako bat. Hizkuntza eskuhartzea gonbite bezala bideratu da. Guraso bakoitzari aukera eman zaio nor bere barrura begiratzeko eta zenbait gauza aldatzen ikasteko. Gutako bakoitzak heldu behar dio gaiari. Baina, jakina, nor bera, zergatik aldatu behar duen ulertzen badu aldatuko da, zentzua bilatzen badiu, ez guk edo irakasle batek esaten diolako...Ikuspegi honetatik, sakonagoa eta anbiziotsuagoa da eskuhartze-modua. Bereziki aipagarria da HABEko teknikari diren Xabier Elortza eta Alex Mungiaren ekarpena, beraiek konbentzitu baikintuzten ikusmolde honetaz familia bezalako esparru pribatuan eragiteko orduan.

Hizkuntza normalizaziotik bideratzen ditugun plangintzetan, plano mikroa eta makroa uztartu behar izaten ditugu. Tailer hau, zalantzarik gabe, lehenengoan kokatzen da, pertsona gutxirengan eragiten du baina, tantaka-tantaka, kultura aldaketa bat bidera liteke horrela. Ikuspegi kualitatiboetara bidea zabaldu beharko litzaieke.

## 4. Zergatik Aita Larramendi ikastolan

---

Eskuhartze modu hau bideratzeko aurrebaldintza batzuk behar izan dira: lehenengoa, udal eta ikastetxeen arteko lankidetzak; bigarrena, ikastolan eskola-komunitatea eraikitzeari eman zaion garrantzia; hirugarrena, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik bideratu den proiektu berritzaileak ikastolan izan duen erantzuna.

Buruntzaldeko egitasmoaren lehen fasean, herri bakoitzeko ikastetxe bat aukeratu genuen eskuhartzearekin hasteko. Andoainen Aita Larramendi Ikastola aukeratu genuen arrazoi ezberdinengatik. Gerora herriko ikastetxe guztietara zabaldu da egitasmoa. Nolanahi ere, udal eta ikastolen arteko lankidetzak aurreragotik baldin badator ere, egitasmo honek hurbildu egin gaitu. Harreman hori oso garrantzitsua izan da lankidetzarako. Aipatzekoa da, era berean, bereziki sustatu dugula udaletik ikastetxe guztien arteko lankidetzak ere.

Bestalde, Aita Larramendi ikastola bere bidea egiten ari da eskola-komunitatea eraikitzeko orduan. Guraso Eskolaren bidetik batez ere, baina bestelako bitartekoak erabiliz (tutore-guraso arteko harremana sendotuz, ekintza ezberdinen dinamizazioa, gurasoen euskara batzordea...) gurasook heziketa-kultura berean txertatzeko konpromisoari heldu dio ikastetxe kooperatibo honek. Bide luzea geratzen da oraindik baina urrats sendoak eman dira familiak eta eskolak talde bakarra osatzeko helburuan. Eskolak familia bertan txertatzeko erronka hartu du eta gurasoak onartzen doaz seme-alabak hezteko lana ezin dutela eskolaren gain utzi soilik; biek dutela erantzukizuna, ildo beretik joan behar dutela.

Guraso eskolaren bitartez eskolak hartzen du gurasoak hezteko ardura nolabait. Gai ezberdinen inguruko eskaintza egin ohi du ikastolak ikasturtean zehar (TBren erabilera, elikadura ohiturak, mugak nola jarri, ipuin kontaketa e.a.). Baina, dudarik gabe, gai arrakastatsuena, Adimen Emozionalaren lanketa izan da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2005ean abiarazi zuen heziketa emozionala lantzeko proiektua. Lehen prestakuntza-programa Gipuzkoako irakasleei zuzendua izan zen. Gerora, ikasle eta gurasoengana zabaldu da egitasmoa. Heziketa emozionala hezkuntzaren praktikan txertatzeko estrategia ezberdinak erabili dira, zeharkakotasuna, curriculum-txertakuntza eta tutoretza daude horien artean. Andoingo Aita Larramendi ikastolak hasieratik hartu du parte egitasmo honetan (ez da horretan herriko ikastetxe bakarra) eta bere bidea egiten ari da hiru estrategia moduetan. Beraz, aurrerantzean Adimen Emozionalaren lanketa sistematizatzen joango da.



## 5. Balorazioa eta aurrera begirako proposamenak

---

Tailerraren alderdi operatiboa ongi joan da, bai antolaketa bai koordinazioa. Guraso taldea bera ere oso ona izan da, elkarrekin esperientziak konpartitzeko aukera eta jarrera erakutsi dute. Bestetik, irakaslearen lana ere oso ona izan da. Taldea bikain gidatu du. Sorkuntza ikusi da prozesuan eta taldea gidatzeko abilezia.

Hala ere, tailerra motz geratu zaigu. Azkenean *Gurasoentzako Liburuxka* lantzeko denborarik ez da gelditu eta horretan geratu da hankamotz tailerra. Gurasoek beren balorazioetan bi gaien arteko uztartketan sakontzeko eskatu digute. Tailerrean jasotzaileek gauza interesgarriak ikasi dituzte baina bi gaien uztarketa horretan zerbaiten faltan geratu dira Hizkuntza Transmisioari dagokionez. Beharbada, kasu errealean gaineko tutorizazio-prozesu moduan bideratu beharko litzateke. Ez soilik ikastaro gisa, jarraipen-lan bezala baizik.

Aurrera begira, gainera, tailerreko partaideen ezagutza adimen emozionalean parekoa izatea eta partaideen formazioa aurrez jakitea baliagarria izan liteke tailerra hobeto egokitzeko. Bestetik, bi diziplinen uztarketa bi bidetik ikusten dugu: maila orokorrean, euskararen familia bidezko transmisioak sortzen dituen emozioen inguruko ikerketa bideratuz, batetik. Eta maila zehatzagoan, ikastetxearen hizkuntza proiektua eta heziketa emozionalaren garapen proiektua batera ekarriz, bestetik.

Heziketa emozionalaren sistematizazioaren bidetik, familia bidezko hizkuntza transmisioaren sistematizazioa ere bidera litekeela uste dugu. Ziurrenik, sendotu egin beharko da eskuhartzea, tailer honen iraupena anekdotikoa da oso ikastetxearen eguneroko jardunean. Baina bide bat erakusten du. Eragile ezberdinen arteko lankidetzeta areagotzeko balio dezake, gurasoengana beste sinesgarritasun batekin iristeko, hizkuntza transmisioari zentzua bilatzen lagunduz; hezkuntza komunitatea indartzen joateko eta seme-alaben heziketan, baita hizkuntza heziketan ere, eraginkorragoak izateko. Dimentsio emozionalaren lanketak elkarlanerako aukera berriak eskaintzen dizkigu baina prest egon behar dugu, era berean, besteen emozioak gure lanean integratzeko. Hortxe erronka